

EROMA'TIK

Aita Santua ta Italia'ko Gobernua adiskidetu dira.

1870'ko Irailaren 20'n Bitor Imanol'en gudariak indahez sartu zirean Efoman bertako Efege zanaren Aita Santuaren eskubideak ostikoperaturik. Garai atan Aita Santu zan IX Pio Batikano'ko yaregiratu ta ateak itxirik gogor yafi zan oker aren aurka, ta bere Efege - eskubideai eusteko gogoa erakutsi eban. Eskubideok Yaungoikoaren erabagiz Aita Santuen eskuetaratu zirean Aita Santutzako egikizunak bear bezela betetako, egikizunok betete ori inok galazo ezeyon eta galazoten ete eutsanen antzik be izan ezeiten. Ofegaitik ezeikezala ukatu esan eban IX Pio. Non possumus. Bitartean Aita Santuarena zan Kirikinal'eko yauregian yafi zan Gobernuak Italia osoko Efege bakaña Bitor Imanol eta ondorengoak zireala iragafi eban, Latefi bafiko Uri-Burua Efoma, ta Aita Santuaren efegetzea betiko amaitu zala. Efegetzea ezeze, bere yauregi, etxe ta lufen yabetasuna be ukatu eutsan Gobernuak Aita Santuari; yauregi batzuk *erabilteko* eskubide baño ezeutsan ezagutzen.

Legez gauzak onan egozan; egitez baña Aita Santuak bere Batikano'ko yaure-

gian Efege ziarduan eta Gobernua etzan inoiz asartu etxe atan sartzen eta Italiako gudariak S. Pedro'ko elezan sartuko bazirean be, leuren izkilu edo armak kanpoan itxi bear izaten ebezan, neuk bein baño geyagotan ikusi dödanez.

Beraz afezkero legeri buruz Aita Santua ta Gobernua asafe bizi izan dira ta inoiz baño safiagotan baita egitez be. Asafe ori kaltegafi zan Italia'ko elexa-rentzat eta Gobernuarentzat, baña batez be onentzat; italiarik geyen geyenak katolikoak izanik, Aita Santu ta elexearen aurka zebilen Gobernuak, nai ta ez, eragozpide andiak izan bear ebazan bere egikizunak betetorduan. Au ondo ikusten eben politikorik erneenak eta baeukien gogoa Aita Santuagaz alkartzeko, batez be Mussolini'n afeetik izan dan politikorik andienak, Crispik. Onek argi ezagutu eban Aita Santuagaz asafe zirean bitartean Gobernuak loka biziko zireala eta XIII Leon'eri alkartzeko asmoa agertu eutsan. Etzan baña oraindik atarako garaya; orduan Italia'ko nagusi *masoyak* zirean, ezeben oneik ezetara be alkartzetik gure, Aita Santua ta elexea osoan ondatu baño eta Crispiren alegiñak txafagora ekafi ebezan. Bere asmoak bete eziñean

asañatü zan au eta 'elexeari kalte ikaragafiak' egin eutsazan; oraitio elexea ondututeko bere ta edozeñen alegiñak alpefi-koak eta norberentzat kaltegafiago zireala

Oraintxe esan dodanez Aita Santu ta Italiako Gobernuaren asañeak ofen luzaro irautearen efurik andiena masoyak izan eben; etzirean baña izan bakañik. Kätoli-



XI PIO, DOIPURUBA

ezaguturik, Aita Santuagazko asañe ofi amaya ekarten eutsan gizona Italia'ko politikorik andiena izango zala esan eroyan.

koak eurak be, batez be lelergo urteetan, Aita Santuari egingo irañaren miñak eraginda edozelango alkartzearen aurka agiri

zirean geyen-geyenak, Italia'tik atazkoak batez be; lapufak indafez ta mafuz kendo guztia itzuli arte, ezeben nai aregaz ituntzerik; Kardenalak eurak be geyen baten uste ofetakoak izaten zirean eta Aita Santuak ezaban gure ainbeste seme zintzo mindu.

Diñoenez Italia atzenengo gudan sar-tzearen efua masoyak izan eben; yakiña, irabazteafen egingo eben ori. Baña oin-goan euren asmoak oker urten eutsen. Guda-bitartean Aita Santua beste edozeñen txatxarkeri barik, guztien ganetik eta goi-goyan ikusi eben efiak eta masoi ta antzekoak aren aurka zabaldu ebezan esanak guzur utsa zireala argi-argi ikusi eben, eta ori dala-ta, guda ostean ezta, geyen baten, lenagoko Aita Santu ta ele-xeaganako gofotorik inon ikusten. Au dala batetik eta bestetik guda-ostean Ita-lia'n agertu dan gizon guren, berezi, Be-nito Mussolinik atzena ekafi dautse befo-geta amazortzi urteko asafe ta alkar aitu-eziñai. Mussolini berez arteza da ta ko-munista amufatua zan bere gaztaroen be ezin ebazan iruntzi masoyak; gitxi-gitxi izanda, euren onerako efi guztiai kolpeak kenduaz bizi zirealako. Komunistakandik alde eginda, faxisten buru egin zanezkoxe ezagutu eban Italia'ko indafik andiena katolikoak eukiela ta, beraz, Italia'n agin-tze sendo ta iraunkofa izateko, katoli-koakaz bat egitea baño ezegoala. Aburu au lelengotik argi agertu eban eta ordu-tixe bere alegiñak katolikoak irabaztera yo eben. Baebazan lelengoetan bere la-gunen artean masoyak be, esaterako Ca-pello gudalburua, baña laster erabagi go-gofak artu ebazan masoyen aurka, bere adiskideai be parkatzeka. Adiskide ba-tzuk galdu ebazan olan, baña bari asko ta asko irabazi be bai. Afezkero katolikorik geyenak, Gotzai edo Obispoetatik asita,

osoan bere alde yafi zirean eta benetan Italia osoaren yabe ta ugazaba izatera el-du zan.

Era oberik ba Aita Santuagazko asaf-eari amaya emoteko, ezin. Alantxe ikusi eban ikusi be Mussolinik eta 1926'ko Ufila 5'n Aita Santuari bere asmo ta gu-raria yakin-erazo eutsan. Aita Santuak, atarako izentau ebenean bere zai egoan efi S. Pedro'ko balkoatik onetsiaz naiko argi erakutsi eban berak be Gobernuagaz ituntzeko guraria baebala eta ala Musso-lini'n eskakizunari bayetz erantzun eu-tsan. Izentau ebezan, ba, bakotzak bere ordezkariak: Aita Santuak Pacelli Yauna eta Mussolinik Barone Yauna; biak lege-gizon bizkofak eta katoliko zintzoak. Afezkero gizon biok euren Nagusien ikus-tefean lanari eten barik ekin eutsen eta urte bi baru amaitutzat emon eben. Lanau amaitukoxe Barone yauna bere bear edefaren saria artzera zeruratu, eban Yaungoikoak. Orduan eldu eutsen lanari alde batetik Mussolinik berak eta bestetik Gaspari Kardenalak, Aita Santuak berak be zer guztiak arduraz aztertuten ebazala, eta laster eldu zirean alderdi biak alkar-tzera.

Zer guzti au ixil-ixilik egin da; bertan bizi gareanok ezeze, Aita Santuaren on-doan bizi direanak eurak be ezekien ezer atzenengo egunerarte. Ni bizi nazan etxe onetan egikizunik gafantsitsuenak esku artean darabizan Gongotzai bat dago, Batikanoan sartu-sartuta eta Aita Santua-gaz astean-astean, gitxienez, bein izaten dana. Onek ba ezekien ezer eta guk zeo-zer bazala esaten geuntsanean, ezetz erantzuten euskun eta itunduko zireanik be ez eban siñestuten. Eta guk be yakin doguna atzefiko izpafingietatik yakin do-gu, emekoak txitik be ezeben aitatuten-eta. Baña atzenean egin dabena izan da

politena. Il onen zazpigafenean deitu eban Aita Santuak Latefien Ordezkariek itunbena yakin - erazoteko eta, yakiña, Ordezkariek bertatik iragafi eutsen Gobernuaí arazoa eta Gobernuak euren menpekoai, ta izparíngi guztiak ufengo egunean bafi pozkafi ori egal guztietara zabaldu eben. Emekoak bafíz ixilik zefayen eta kanpokoak irakufirik zeozer yakitera eldu ezkeintezan, egun batzuetan eskuetara barik euki dauskuez. Benetan bertan bizi gareanok geure artean yazoten zana gitxien yakin dogu. Zeozer bazala bagenkien eta guztion autu ta erausiak arazo ofetzaz zirrean, baña geyen baten egitik urin, ames utsetan bizi gintzazan. Lengo igandean bertan be Lateran'go *Te Deum*'enera ainbesteko laguntzea eldu bazan, asko edo geyenak Mussolini ta Gaspafi ikusteko ustez yoanak zirean, itunbena orduintxe izenpetuko ebelakoaren zurumufua zabaldu zan eñian -eta.

Au ufengo egunean, astelenean, eguerdiko amabi-amabietan egin eben oraintxe aitatuko gizon biok eta une baten Uri osoan zabaldu zan bafi pozkafia. Gertu egozan izparíngiek urten eben kaleetara eta agertu orduko mila ta milaka irakurleen esku-begietan izan zirean. Lateran'go ta beste elexa batzuetako kanpayak Uriko axea ta gure biotzak dardaraka yafi ebezan euren ots alayakaz. Ezin leiteke erakutsi ezetara bafi ofek efomafen baruan sortu eban poza; egi-egiz zora-biauta zirudien. Berealaxe agertu zirean leyo ta balkoetatik Aita Santu ta Italia'ko ikufiñak dingilizka.

Ufengo egunean Aita Santuaren Bureskundearen urte - ufena zan eta atarako eleizkizuna S. Pedro'n zanezkero, al eben guztiak sarpide - txanteldun egin zirean eta beste guztiak elexa-afeko zeya edo

plaza zabalean batzartuteko yafi zirean. Faxistak be arako deya artu eben. Nik baneban elexa sartuteko txantela, baña astiroegi ibiliagaitik, ateak itxita idoro nebazan. Laguntza andia eldu zala adierazoten dau onek. Nire antzean beste asko ta asko sartu eziñik gelditu zirean. S. Pedro'ko zabala ni eldu orduko beterik ez, baña an, or, emen milaka lagunez estalduta agiri zan, eleizkizuna amaitzera koan Aita Santuaren onespina artuteko asmotan. Orduan goxeko amafak ingurua zan eta ordu batetarte eten barik etofi ta etofi baño ezeben egiten. Beraz miloi erdirik etzan, batzuk esan ebenez, baña bai eun miletik gora an Aita Santuaren begira gengozanak. Eguerdirarte atefi zan eta baruko pozak eraginda, labur eritxi yakuzan orduak; gero eurira emon eban eguraldiek eta nire antzean aterki barik yoan zireanak artegatu zirean eta geyenak arkupeetako legofera yo gendun. Izparíngiak eta gauzak ondoen ekiezala zirudienak Aita Santua etzala balkoara agertuko esaten eben eta banaka batzuen itxaropena otzitu eben eta tamalez etxeratu zirean; geyenak baña ezin eben ori siñestu ta gogotsu ta ustetsu zefayen. Zuzen egozan, ainbesteko laguntzea ainbeste ordutan eta alango eguraldiaz bere begira egoala yakin ebanean Aita Santuaren biotza bigundu zan, agertu zan balkoara eta luzarotxo eñiaren agur, txalo ta gorak artu-entzuten eta bereak egiten egon zan ifi-bafeka eta gero eñia maitekiro onetsirik baruratu zan. Afatsaldean bafiro batu zan eñia Kirinal'eko yauregi aurean Efegegi agur egiteko. Italia'ko beste urietan be gitxi gora-bera bardin yazo ei-da, batez be Aita Santua ta Mussolini bertakotzat daukazan Milan'en; an elexa guztietako kanpayak iru orduan eten barik yo ta yo ekin ei-dautse. Izparí-

ingiek diñoenez atzerietan be poz andia sartu dau bañi onek.

Itunben au edo obeto esateko oneik, bi dira-ta, zeatz-zeatz ezta kigu zetan daztaen, bein-beinean ez tira argitaratuko-ta, baña erabagirik andien-andienak badazauguz. Lelengo itunbenaren bitartez Aita Santu ta Italia'ko Gobernuaren asefeari atzena emoten yako. Italia'k *Batikano'ko Uria* eritxiko yakon atalean Aita Santuaren Efegetza ezagutzen dau eta Aita Santuak Italia'ko Latefia orain eralduta dagoan letxe eta Efoma bere Uri-buru dauala ezagutzen dau. Batikano'ko Uriaren ganera Aita Santuak bere agin dupean izango dauz Basilika Nausiak eta beste yauregi batzuk, baña bertako Efege izateka. Italiak Aita Santuari ostutako ondasunen ordañez zazpireun eta befogeta amar miloe emoten dautsaz eskura eta mila miloe titulotan eta beste zer batzuk geyago. Batikano'ko Uria deritxon ori orain artean Aita Santuak beretzat izan dauzan lufak baño apurtxo bat geyago da eta 44 bat ektarea dira. Beraz iñon danik Latefirik txikiena. Baña andi nai txiki izateak eztau izatasuna aldatuten eta Aita Santua benetako Efege izango da bertan eta ez iñoren menpeko.

Bigafen itunbena, erdeldunak *konkordato* deritxoena, Gobernu ta Italia'ko elexearen artu-emonak zuzentzeko egiña da eta, dakigunez, elexearen eskubideak argi ta garbi dazaguzana. Argitaratuten danean, onetzaz astiroago ta zabalago


idazteko asmotan, eztiñot gaur beraz geyago.

Itunben oneik Italia'ko Latefi ta elexeari oso onuragafiak direana efaz ikusten da eta eztauko ofetzaz iñok ezpairik; guztiak diño Mussolinik iñoizko gurendarik andiena irabazi dauala eta emeko eleiztafak be ainbeste urtetan opa izangoa lorturik, pozetan dira. Baña Aita Santuarentzat eta munduko elexa osoarentzat ongari ala kaltegarri ete da itunben au? Aita Santuak egiña dala yakitea naikoa da katolikoentzat, eurak be ontzat emoteko. Baña baleiteke norbaitzuk euren bafuan ain beterik ez gelditzea Aita Santua bigunegi egon dalakoan, lar emon eta gitxiegi artu daualakoa. Benetan asko emon dau Aita Santuak eta aren ondoan gitxi artu, baña ori diñoenai ederto erantzun dautse Aita Santuak berak. Aita Santua aita dalako beti agertu izan da bigun olango itunbenetan, Frantzi ta Españagaz be erakutsi eban lez lengo gizaldian, eta ganera efi askoren efege izateak on baño kalte geyago ekafi eutsazan len be Aita Santuari, bere eleiz-egikizunak betetako. Iñoren menpeko ez izatekotan, obeto baño eztago Aita Santua efiak yaufiteko ardura barik. Olan gitxi eukirik, efi-lapufen bildufik be eztauko.

Lafakoetxea.

1929 - II - 14

Beste aldizkingi batzuk be argitaldu daben afen, geuri zuzen bialdu dausku idazki eder au gure lankide argi Lafakoetxea Aba'k.





XVIII'gn. Urria — 344'gn. zenbakia

GOTZAÑAREN BAIMENAZ

Zornotza'n 1929'ko Epaia 1

BATERA YO BEAR DOGU

— o o o Q o o o —

MAITASUN bi dira gure eriko biotz gustietan sustraitzen alegindu bear gareanak: katolikotar siñestea ta euskereaganako maitasuna. Ziñestea goi-ondasun edereña da, euskerea beko ondasunetan sustrai sakonenak gure biotzetan daukazana. Biok ederto alkartzen dira, antxiñako aizkide dira, eta biok batera eusko biotzetan euren etxean letxe sartzen dira, eta maitasun biok eusko biotzaz yaubetuten diranean, igali edereñak emoten ditue.

Gure eri au, bere izenen yaube izango ba'da, bere izakerea galdu gura ezpau, oitura garbi ta onak zaindu gura ba'ditu, ziñesteari lenen eta gero euskereari eutsi bear dautso, edo obeto esateko biok batera maitasunez zaindu bear ditu.

Ziñestea eta euskerea aizkide zar eta kutunak dira, eta biok gure asaben biotzean batera bizi zirealako, «euskeldun, fededun» aintxiñako esakuna da.

Gure ziñeste ta gure izkuntzaren arteko alkartasun au geyagotzea dagokigu. Ziñesteko egi sakonenak geure izketan azaldu bear doguz, eta gogoko edozein bear izanetan euskaldunak bear daben irakatsia, bere izketan euki bear dau. Ofetarantxe utsunetxoa somatzen ebalako «Yaungoiko-Zale» bazkuna sortu zan, euskaldunei Yaungoikoak gura daben lez, euskeraz zeruko bidea erakusteko. Eta onetantxe batera yo bear dogu. Ofetarako,

Beareko diran gauzetan batasuna.

Zeregin bikaña ta onuratsua izango dala, gai berberak agertzen dau. Baña ofetarako, beareko diran gauzetan batera yo bear, Euskaldunei euskeraz zeruko bidea